

**Fiskalizazio Txostena**  
**Informe de Fiscalización**

**Euskal Autonomia Erkidegoko  
Erakundeen Administrazioa:  
Erakunde Autonomo  
Administratiboak**

**Administración Institucional de  
la Comunidad Autónoma de  
Euskadi:  
Organismos Autónomos  
Administrativos  
2003**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

<b>I</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>5</b>
<b>II</b>	<b>IRITZIA</b> .....	<b>6</b>
II.1	Legeak betetzeari buruzko iritzia .....	6
II.2	Autonomiadun Erakunde Administrazioen (AEA) kontuari buruzko iritzia	7
<b>III</b>	<b>KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDIAK</b> .....	<b>8</b>
III.1	Aurrekontua eta aurrekontu aldaketak .....	8
III.2	Langileak kontratatze prozedura .....	8
III.3	Dirulaguntzen gastuak.....	9
III.3.1	Euskaltegi pribatuei eta autoikaskuntzako zentroe emandakoak .....	9
III.3.2	Justifikatzeko dokumentazioa .....	9
III.4	Kontratazioa .....	10
III.4.1	2003. urtean esleitutako espedienteak .....	10
III.4.2	Aurrez emandako funtsak .....	12
<b>IV</b>	<b>2003KO EKITALDIKO KONTUAK</b> .....	<b>14</b>
IV.1	2003ko aurrekontuaren likidazioa .....	14
IV.2	Emaitzen balantzea eta kontua .....	20
<b>I</b>	<b>INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>21</b>
<b>II</b>	<b>OPINIÓN</b> .....	<b>22</b>
II.1	Opinión sobre cumplimiento de la legalidad .....	22
II.2	Opinión sobre la cuenta de los organismos autónomos administrativos (OOAA) .....	23
<b>III</b>	<b>ASPECTOS DE GESTIÓN</b> .....	<b>24</b>
III.1	Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	24
III.2	Procedimiento de contratación de personal .....	24
III.3	Gastos por subvenciones .....	25
III.3.1	A Euskaltegis privados y centros de autoaprendizaje .....	25
III.3.2	Documentación justificativa .....	26
III.4	Contratación .....	26
III.4.1	Expedientes adjudicados en 2003.....	26
III.4.2	Fondos anticipados .....	28



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>IV Cuentas del Ejercicio 2003 .....</b>	<b>29</b>
IV.1 Liquidación del presupuesto 2003 .....	29
IV.2 Balance y cuenta de resultados .....	35
<b>ANEXOS .....</b>	<b>37</b>
A.1 Bases de presentación.....	37
A.2 Gastos de personal .....	38
A.3 Gastos de funcionamiento.....	39
A.4 Subvenciones corrientes.....	40
A.5 Modificaciones Presupuestarias.....	41
A.6 Créditos de compromiso.....	41
A.7 Contratación .....	42
A.8 Contabilidad pública.....	45
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>47</b>

Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 3a  
Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 2006



## I SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (TVCP/HKEE), berau arautzen duen 1/1988 Legean ezarritakoaren arabera eta 2004ko apirila – 2005eko martxoa aldirako prestatuta zuen lan programa betez, Erakundeen Administrazioaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomiadun Erakunde Administratiboak (AEA)) 2003ko ekitaldiaren fiskalizazio txosten hau landu du. AEAk zuzenbide publikoko erakundeak dira, berezko nortasun juridikoa dutenak, eta Administrazio Orokorreko honako sail hauei atxikita daude.

AUTONOMIADUN ERAKUNDEAK	SAILA
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) .....	Kultura
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE) .....	Ogasuna eta Herri Administrazioa
Euskal Herriko Polizia Ikastegia (EHPI).....	Herrizaingoa
Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT).....	Ogasuna eta Herri Administrazioa
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN).....	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza
Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE) .....	Lehendakaritza
Soin Hezkuntzako Euskal erakundea (SHEE) .....	Kultura

Erakunde hauen Kontuak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren likidazioan sartzen dira.

Aplikatu diren kontabilitate printzipioak eta lege araudia bete den ala ez aztertzen ditu lan honek, horretarako Kontua justifikatzeko ebidentzien aukeraketa proba batzuk eginez eta haren aurkezpen orokorra ebaluatuz.

Ez dugu egin gastuaren eraginkortasunaren analisirik, TVCP/HKEE arautzen duen Legeak hala aurreikusten badu ere. Halaz ere, antzeman ditugun alderdi partzialak txosten honen III. epigrafean zehaztu ditugu.

Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea (SHEE) delako Autonomiadun Erakunde Administratiboaren kontuei ez zaie fiskalizaziorik egin, irailaren 13ko 240/2005 Dekretuak (2005-09-16ko EHAA) hura desegin eta Euskal Herriko Unibertsitatean sartzea onartu zuelako eta Dekretua 2005eko urriaren 1ean indarrean sartu zelako.



## II IRITZIA

### II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

- 1.- 2003. urterako onartu ziren AEAen aurrekontuek ez dute barnean hartzen lurraldeen araberako diru-sarreraren eta gastuen sailkapenik eta, beraz, ez dute betetzen 1/1994 Legegintza Dekretuaren 57. artikulua.
  
- 2.- 2003-12-31n AEAen ondasunen eta eskubideen inbentarioak ez zuen jasotzen 1.174 mila euroko ondasunen banan banako azalpen zehatzik (ikus 8. eranskina) eta, beraz, ez du betetzen Euskadiko Ondareari buruzko 14/1983 Legearen 11. artikulua.
  
- 3.- EAEko AEAek ez dute aitortu, PFEZren ondorioetarako espezieetan egindako ordainketa gisa, beren zerbitzura dituzten langileen alde sinatutako bizi-aseguruei eta lanekoak ez diren istripu-aseguruei egotzi dakiekeen kostua.
  
- 4.- Uztailaren 21eko 161/98 Dekretu bidez, tasa eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 19ko 13/98 Legearen 178. artikulua garatu zen. Honek barnean hartzen zituen prezio publikoen bitartez ordain zitezkeen ondasunak, zerbitzuak eta jarduerak, eta zenbatekoak finkatu edo aldatzea, erakunde bakoitza menpe duen saileko sailburuaren agindupean utzi zuen.  

EMAKUNDEK ez ditu finkatuta zehazki argitalpenen salmentagatik eta mintegi, biltzar, jardunaldi eta ikastaroetako matrikulengatik ordain daitezkeen tasa eta prezio publikoak.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak (EHPI) ere ez du Sailburuaren aginduzko zenbatekorik ezarrita, eta eskaera jaso eta azterketa egiteko tasa, 18. promozioiko deialdiaren oinarrietan aurreikusita dagoena, bakarrik aplikatzen du. Jatetxeko eta kafetegiko zerbitzuetarako 1994. urtean ezarritako zenbatekoak aplikatu dira, urte horretan egindako kostuen kalkuluen arabera, zegoen Aginduaren bidez onartuak izan gabe.
  
5. EMAKUNDEKO lanpostuen zerrendan ez da sartzen aldi baterako langile gisa 2002ko urtarrilaren 2ko Ebazpen bidez izendatutako prentsa aholkulariaren lanpostua, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 14.1 artikuluan hala xedatzen duen arren.

Gure iritziz, gorago deskribatutako salbuespenak izan ezik, EAEko Autonomiadun Erakunde Administratiboek neurri handi batean bete dute, 2003ko ekitaldian, beren ekonomia eta finantza-jarduera arautzen duen lege araudia.



## **II.2 AUTONOMIADUN ERAKUNDE ADMINISTRATIBOEN (AEA) KONTUARI BURUZKO IRITZIA**

1. EUSTATen diruzaintzako soberakinak 219 mila euro txikiagoa izan behar luke, Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) eta EUSTATEk 2001eko eraikinen eta lokalen errolda egiteko sinatu zuten hitzarmenaren likidazio akordioaren ondorioz.
  
2. Ondarearen Kontabilitateari bakarrik dagozkion salbuespenak:
  - Ibilgetuaren epigrafearen barruan, guztira 3.826 mila euroko partidak daude, banan banako azalpen zehatzik gabe (ikus 8. eranskina). 2003-12-31n partida horien kontabilitateko balio garbia 1.174 mila eurokoa zen.

Gure iritziz, aurreko paragrafoetan azaldutako salbuespenak izan ezik, lan honi erantsitako EAeko Autonomiadun Erakunde Administratiboen kontuek 2003ko ekitaldian izandako jarduera ekonomikoaren alderdi adierazgarri guztiak azaltzen dituzte.



### III KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDIAK

Atal honek kontabilitatea, langileen kudeaketa eta kontratazioa arautzen dituzten printzipioak betetzeari dagokionez, eragin garrantzitsurik ez duten akatsak jasotzen ditu.

#### III.1 AURREKONTUA ETA AURREKONTU ALDAKETAK

EHPIren aurrekontua eta egindako aldaketak aztertu ondoren, honako ondorio hau atera da: aurrekontuak azkenean nola erabili diren kontuan izanik, aldaketa horiek ez ziren beharrezkoak eta, beraz, aurrekontua egiteko orduan zorrotasun falta nabari da.

Gastuen 4. kapituluaren kreditua, uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 54.2 artikuluan aurreikusitako ordainketak egiteko 18. promozioiko ikasleei egindako transferentziei dagokie.

Ordainketaren izaera eta praktiketako funtzionarioak zirela kontuan izanik, aurrekontuko 1. kapitulan sartu behar da langileen gastu gisa.

Bestalde, kapitulu horretatik gastuen 2. kapitulura 342 mila euroko transferentzia egitea Gobernu Kontseiluak onartu behar zuen, transferentzia izenduna zela eta aldaketa horrek eragindako helburuen, adierazleen eta ekintzen aldaketak kontuan hartuta.

#### III.2 LANGILEAK KONTRATATZEKO PROZEDURA

AEAetako aldi baterako langileak kontratatzeke jada ezarritako prozedura bat dago. 2004. urtean Langileen Kudeaketa Integralko (LKI) programa informatikoa martxan jarri zenetik, prozedura horren prozesuak eta dokumentuak bateratuta daude.

Halaz ere, 2003. urtean zegoen prozeduran nahiz gaur egun LKIren bitartez jarraitzen den prozeduran, ez dira jasota geratzen eskatutako lanposturako izangaiek egindako kontsultaren eta lortutako erantzunaren parametroak, ezta hautatutako izangaia aukeratzeko ondoren egin diren gestioak ere.

Gomendagarria litzateke, gaur egun dauden gainerako beste formularioak bezala, izapidetutako eskaeraren eta aukeratutako izangaia emaitzak jasota gera daitezen, LKIin egin behar diren aldaketak egitea.

Gainera, komenigarria litzateke gaur egun dauden lan-poltsak zabaldu eta AEAen premia berriei egokitzea.





### **III.3 DIRULAGUNTZEN GASTUAK**

#### **III.3.1 EUSKALTEGI PRIBATUEI ETA AUTOIKASKUNTZAKO ZENTROEI EMANDAKOAK**

Dirulaguntzak jaso ditzaketen gastu-motak espezifikokoak dira, gastu didaktikoen eta barnetegiko gastuen kontzeptua izan ezik. Aztertutako 15 espedienteak aztertzean, alde aurretik ezarritako irizpide homogeneousen gabezia nabaritu da eta, horrekin batera, gastu-mota jakin batzuk onartzeko behar besteko iragazkirik ere ez zegoela. Hala, lurralde bakoitzeko ikuskaritza zerbitzuaren irizpideen arabera geratu da kasu bakoitza onartzea eta dagokion zenbatekoa ezartzea.

Gainera, onartzeko moduko gastua ez delako edo euskaltegiarenak ez diren beste zerbitzu batzuei egoztekoak diren gastuak (kultura elkarteak, jarduera desberdinetako elkarteak, etab.) barnean hartzeagatik haren zati bat bakarrik onar daitekeelako, justifikatutako guztizkoari zuzenketak egin zaizkionean, ez dira inon jaso onartutako eta ukatutako kontzeptu eta zenbatekoak.

Gehienak kooperatiba sozietateak badira ere, euskaltegiek tipologia juridiko desberdina dute eta, beraz, diruz lagundutako gastuan BEZen zati bat sartzen da eta kopuru hori, era berean, euskaltegiak berreskuratzen du (gutxienez zati bat).

Sartutako gastu batzuk euskaltegiak berreskuratzen ditu zuzenean eta, beraz, ez dira dirulaguntzak jaso ditzaketen gastu gisa zenbatu behar (ikasturteko liburuak eta irakurketa liburuak, telefono publikoak, barnetegietako irteera gastuak, ibilaldiak, etab).

**Euskaltegietako jarduerak antzekoak izan ohi direla kontuan hartuta, dirulaguntzak jaso ditzaketen gastu-motak hobeto finkatu eta gehiago zehaztu behar lirateke eta onartuak eta ukatuak izan direnak nonbait jaso behar lirateke.**

2003ko urriaren 28ko Ebazpenaren 12.4.1a artikulua xedatutakoa betez, langileen gastuaren kontzeptuaren justifikazioa nomina eta dagokion gizarte segurantzako dokumentua izan beharko lirateke, azpikontratatuaren kasuan TC1-TC2 eta gainerako kasuan autonomoen ordainagiria.

Aزتertutako 15 espedienteetatik, 3tan banku-transferentzia onartzen da egiaztagiri gisa, nominarik erantsi gabe, beste 3tan nominak sinatu gabe daude eta ordainketa egiaztagiririk ez da ageri. Beste seitan, nominak sinatuta daude, baina ez da erantsi haiek justifikatzeko ordainketa dokumenturik.

Kasu batzuetan ezin dira bateratu PFEZen eta Gizarte Segurantzaren aitortutako zenbatekoa eta nominen ondoriozkoa, euskaltegiko edo euskaltegia barnean hartzen duten kultura elkarteko langile guztiek aitortpena batera egin dutelako.

Euskaltegiek aurkezten dituzten Gizarte Segurantzaren egiaztagiriak desberdinak dira, Gizarte Segurantzaren aurkeztu beharreko dokumentuak homogeneizatuta dauden arren.



Batzuetan TC1 aurkezten dute, beste batzuetan TC2, besteetan banku-zordunketaren dokumentua eta hainbatetan Internet bitartez aurkezteko dokumentua.

Langileen gastua justifikatzeko dokumentuek deialdian espresuki adierazten dena izan behar lukete, hau da, nomina eta gizarte segurantzaren dokumentua; eta aurrekoen osagarri diren beste dokumentu batzuk ez lirateke onartu behar edo deialdian zehazki sartu behar litzateke haien balioa.

HABEko Zuzendari Nagusiaren 2003ko urriaren 28ko Ebazpenak, euskaltegi pribatuentzako, autoikaskuntza zentroentzako eta Euskal Etxeentzako dirulaguntzak emateko deialdia egiten duenak, ez du bere artikuluetan jasotzen Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izan behar direla eta, beraz, ez du betetzen indarrean dagoen legeriak ezarritakoa.

### **III.3.2 JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA**

Izandako gastuak justifikatzeko jarraitzen den prozeduran, dokumentu kopuru handia erabiltzen da eta, beraz, baliabide ugari eskaini behar zaio haiek tratatu eta egiaztatzeari. Gaur egun ditugun aukera teknologikoak kontuan izanik, gomendagarria litzateke, dokumentu guztiak erantsi beharrik izan gabe, izandako gastuaren egiazkotasuna bermatuko duten beharrezko eta behar besteko aplikazioak jartzea. Hala, dirulaguntzak jaso ditzaketen gastu-motak hobeto kontrolatuko lirateke, datuak manipulatu eta nahi gabeko hutsegiteak egitea saihestuko litzateke eta, datuak egiaztatu eta aztertzeke ikuskapenak areagotzeko baliabide gehiago egongo lirateke.

### **III.4 KONTRATAZIOA**

#### **OROKORRA**

2003. urtean Gobernuak ez du eguneratu Kontratuen Erregistroa. Kontratazioaren prozesu osoa, erregistroa barne, hartuko duen proiektu informatiko bat badago. Gaur egun Kontratuen Erregistroa eguneratzeko beharrezkoak diren lanak egiten ari dira.

#### **III.4.1 2003. URTEAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK**

Aztertutako espedienteen zerrenda A. 7. eranskinean azaltzen da zehaztuta.

#### **HABE**

471 mila euroan esleitutako 4 espedientetan, ez da kontratazio-mahairik osatu 136/96 Dekretuak hala ezartzen badu ere.

518 mila euroan esleitutako 5 espedientetan, ez da harrera aktarik ageri.



## HAEE

562 mila euroan esleitutako 2 espedientetan, ez dago behar bezala justifikatuta haren izapideak egiteko izandako premia.

## EHPI

758 mila euroan esleitutako 6 espedientetan, ez dago behar bezala justifikatuta haien izapideak egiteko izandako premia.

22 mila euroan esleitutako espediente bat zuzenean esleitu zen eta ez zen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako lizitazio-prozedura erabili.

101 mila euroan esleitutako espediente batean, azpikontratazio xede izandakoan, ez ziren errespetatu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratuan egoera horretarako aurreikusitako betebeharrak.

104 mila euroan esleitutako espediente batean erabilitako irizpide bat, guztizkoaren %60 dena, ez dago alde aurretik behar bezala banakatuta kontratuaren lizitazio fasean. Izan ere, organo kudeatzaileak zehazten du esleipen fasean.

63 mila euroan esleitutako espediente batean, ez dago behar bezala egiaztatuta esleipendunaren kaudimen teknikoak.

Hurrenez hurren 49 mila euroan eta 23 mila euroan esleitutako 2 espedientetan, hain zuzen EHPIren eraikinetako pintura lanei eta web orria hedatzeko lanei dagozkienetan, kontratazioaren xedea zatikatu egin da eta, beraz, ez da bete Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 68. artikuluan aurreikusitakoa.

## EUSTAT

438 mila euroan esleitutako 4 espedientetan “langileen esperientzia” irizpidea baloratu da esleipen fasean.

## OSALAN

Hurrenez hurren 22 mila euroan eta 27 mila euroan zuzenean esleitutako 2 espedientetan ez dira eskatu nahitaezko eskaintzak.

Hurrenez hurren 22 mila euroan eta 14 mila euroan zuzenean esleitutako 2 espedientetan kontratazioaren xedea zatikatu egin zen eta, beraz, ez da bete Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 68. artikuluan aurreikusitakoa. Gainera, zenbatekoa kontuan izanik, lehiaketa bitartez izapidetu behar zen.

## EMAKUNDE

31 mila euroan esleitutako espediente batean ez dago behar bezala justifikatuta esleipendunaren eksklusibitatea.

42 mila euroan esleitutako espediente batean “esperientzia” irizpidea baloratu zen esleipen fasean.



### III.4.2 AURREZ EMANDAKO FUNTSAK

#### HAEE

“ADOP” sistemaren bidez egin beharreko hainbat gastu izapidetu dira Prozedura honen bitartez, baina kontzeptu homogeneoak direnez, eta hornitzaile bera, gastu guztiak batera hartu behar dira, eta guztira 12 mila eurotik gorako gastuak direnez, prozedura horretan erabil daitekeen gehienezko zenbatekoa gainditzen dute.

Kontzeptu horien artean azpimarratzekoak dira, besteak beste, argiaren, uraren, gasaren eta garbiketa zerbitzuen hornidura, itzulpenak, idazlanak eta fotolitoak, iragarkiak eta ikastaroak ematea.

#### EHPI

“ADOP” sistemaren bidez egin beharreko hainbat gastu izapidetu dira Prozedura honen bitartez, baina kontzeptu homogeneoak direnez, eta hornitzaile bera, gastu guztiak batera hartu behar dira, eta guztira 12 mila eurotik gorako gastuak direnez, prozedura horretan erabil daitekeen gehienezko zenbatekoa gainditzen dute.

Kontzeptu horien artean azpimarratzekoak dira argiaren, uraren, gasaren, gasolioaren, jantzien eta material elektrikoaren hornidura eta telefonia zerbitzua.

#### EUSTAT

“ADOP” sistemaren bidez egin beharreko hainbat gastu izapidetu dira Prozedura honen bitartez, baina kontzeptu homogeneoak direnez, eta hornitzaile bera, gastu guztiak batera hartu behar dira, eta guztira 12 mila eurotik gorako gastuak direnez, prozedura horretan erabil daitekeen gehienezko zenbatekoa gainditzen dute.

Kontzeptu horien artean azpimarratzekoak dira liburu eta oparien erosketak eta itzulpenen eta bidaiaren zerbitzuak ere.

Gomendagarria litzateke prozedura hau izapidetze fase bereziak behar ez dituzten gastuentzat bakarrik erabiltzea (ADOP), eta gainera irailaren 30eko 211/97 Dekretuan eta hura garatzen duen 200ko martxoko Aginduan ezarritako gehienezko zenbatekoen kasuan bakarrik erabiltzea.

EHPI erakundearen “Beste zenbait hornidura” kontzeptuak beren artean oso desberdinak diren hornidurak hartzen ditu barne (157 mila euro guztira).



Gomendagarria litzateke kontzeptu hori aurrekontu partida desberdinetan banakatzea, gastu-motak eta kontabilizazio eta lizitazio prozedura egokiak kontrolatu eta kudeatu ahal izateko.



## IV 2003KO EKITALDIKO KONTUAK

### IV.1 2003KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

#### HABE

AURREKONTU ARRUNTA							Mila-euro
DIRU-SARRERAK KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK..	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. ESKUBIDE.	KOBRATUTA	KOBRA- TZEKO	
2.- Zeharkako zergak .....	-	-	-	-	-	-	-
3.- Tasak eta beste batzuk .....	8.250	-	8.250	8.499	8.499	-	-
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	17.994	(101)	17.893	17.313	17.313	-	-
5.- Ondarezko sarrerak .....	3	-	3	3	1	2	-
7.- Transferentziak eta kapital-laguntzak.....	-	-	-	580	580	-	-
8.- Finantza-aktiboen murrizketa.....	528	795	1.323	30	30	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>26.775</b>	<b>694</b>	<b>27.469</b>	<b>26.425</b>	<b>26.423</b>	<b>2</b>	

GASTUAK							Mila-euro
KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. OBLIGAZIO.	ORDAINDUTA	ORDAIN- TZEKO	
1.- Langileen gastuak.....	2.876	60	2.936	2.660	2.648	12	-
2.- Funtzionamenduko gastuak.....	3.600	875	4.475	4.466	2.815	1.651	-
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	19.799	(266)	19.533	19.368	18.014	1.354	-
6.- Inbertsio errealak .....	220	100	320	256	62	194	-
7.- Transferentziak eta kapital-laguntzak.....	230	(75)	155	17	-	17	-
8.- Finantza-aktiboen gehikuntza.....	50	-	50	24	24	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>26.775</b>	<b>694</b>	<b>27.469</b>	<b>26.791</b>	<b>23.563</b>	<b>3.228</b>	

AURREKONTU ITXIAK					Mila-euro
	ERA.GABEKO ESKU. 02.12.31N	KOBRAN/ ORDAINK.	BALIOGABETZE.	ERA.GABE. ESK. 03.12.31N	
Diru-sarrerak .....	3	3	-	-	-
Gastuak .....	2.720	2.720	-	-	-

2003KO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N		Mila-euro
Diruzaintzako soberakina 02.12.31n.....		2.481
2003ko ekitaldiaren emaitza .....		(366)
Ekitaldi arrunta .....	(366)	
Ekitaldi itxiak .....	-	
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N</b>		<b>2.115</b>

2003ko abenduaren 31n ez dago kontingentzia esanguratsurik eta, honenbestez, Diruzaintzako Soberakina 2.115 mila eurokoa da.



## HAEE

AURREKONTU ARRUNTA							Mila-euro
DIRU-SARRERAK KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. ESKUBIDE.	KOBRATUTA	KOBRA- TZEKO	
3.- Tasak eta beste batzuk .....	1.432	-	1.432	1.142	833	309	
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	13.326	-	13.326	13.326	13.326	-	
5.- Ondarezko sarrerak .....	15	-	15	9	6	3	
8.- Finantza-aktiboen murrizketa.....	188	-	188	16	16	-	
9.- Finantza-pasiboen gehikuntza.....	-	-	-	-	-	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.961</b>	<b>-</b>	<b>14.961</b>	<b>14.493</b>	<b>14.181</b>	<b>312</b>	

GASTUAK							Mila-euro
KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. OBLIGAZIO.	ORDAINDUTA	ORDAIN- TZEKO	
1.- Langileen gastuak.....	3.656	94	3.750	3.731	3.712	19	
2.- Funtzionamenduko gastuak.....	9.727	200	9.927	9.557	8.979	578	
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	1.464	(393)	1.071	505	156	349	
6.- Inbertsio errealak .....	84	99	183	147	12	135	
8.- Finantza-aktiboen gehikuntza.....	30	-	30	12	12	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.961</b>	<b>-</b>	<b>14.961</b>	<b>13.952</b>	<b>12.871</b>	<b>1.081</b>	

AURREKONTU ITXIAK					Mila-euro
	ERA.GABEKO ESKU. 02.12.31N	KOBRAN / ORDAINK.	BALIOGABET.	ERA.GABE. ESK. 03.12.31N	
Diru-sarrerak .....	1.015	957	5	53	
Gastuak .....	1.242	1.205	37	-	

2003KO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N		Mila-euro
Diruzaintzako soberakina 02.12.31n.....		1.027
2003ko ekitaldiaren emaitza .....		573
Ekitaldi arrunta .....	541	
Ekitaldi itxiak .....	32	
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N</b>		<b>1.600</b>

2003ko abenduaren 31n ez dago kontingentzia esanguratsurik eta, honenbestez, Diruzaintzako Soberakina 1.600 mila eurokoa da.



## EHPI

AURREKONTU ARRUNTA						Mila-euro
DIRU-SARRERAK KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. ESKUBIDE.	KOBRATUTA	KOBRA- TZEKO
3.- Tasak eta beste batzuk .....	72	-	72	54	54	-
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	11.210	97	11.307	11.307	11.307	-
5.- Ondarezko sarrerak .....	-	-	-	28	27	1
7.- Transferentziak eta kapital-laguntzak.....	548	-	548	548	548	-
8.- Finantza-aktiboen murrizketa.....	12	-	12	22	22	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.842</b>	<b>97</b>	<b>11.939</b>	<b>11.959</b>	<b>11.958</b>	<b>1</b>

GASTUAK						Mila-euro
KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. OBLIGAZIO.	ORDAINDUTA	ORDAIN- TZEKO
1.- Langileen gastuak.....	4.543	322	4.865	4.411	4.395	16
2.- Funtzionamenduko gastuak.....	5.335	117	5.452	4.411	3.641	770
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	1.404	(342)	1.062	1.017	1.017	-
6.- Inbertsio errealak .....	530	-	530	507	144	363
8.- Finantza-aktiboen gehikuntza.....	30	-	30	25	25	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.842</b>	<b>97</b>	<b>11.939</b>	<b>10.371</b>	<b>9.222</b>	<b>1.149</b>

AURREKONTU ITXIAK					Mila-euro
	ERA.GABEKO ESKU. 02.12.31N	KOBRAN / ORDAINK.	BALIOGABET.	ERA.GABE. ESK. 03.12.31N	
Diru-sarrerak .....	1	1	-	-	-
Gastuak .....	966	954	12	-	-

2003KO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N		Mila-euro
Diruzaintzako soberakina 02.12.31n.....		2.522
2003ko ekitaldiaren emaitza .....		1.600
Ekitaldi arrunta .....	1.588	
Ekitaldi itxiak .....	12	
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N</b>		<b>4.122</b>

2003ko abenduaren 31n ez dago kontingentzia esanguratsurik eta, honenbestez, Diruzaintzako Soberakina 4.122 mila eurokoa da.





## EUSTAT

AURREKONTU ARRUNTA							Mila-euro
DIRU-SARRERAK KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. ESKUBIDE.	KOBRATUTA	KOBRA- TZEKO	
3.- Tasak eta beste batzuk .....	43	333	376	359	356	3	
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	7.672	107	7.779	6.731	6.731	-	
5.- Ondarezko sarrerak .....	4	-	4	1	1	-	
7.- Transferentziak eta kapital-laguntzak.....	638	-	638	639	639	-	
8.- Finantza-aktiboen murrizketa.....	246	-	246	12	12	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.603</b>	<b>440</b>	<b>9.043</b>	<b>7.742</b>	<b>7.739</b>	<b>3</b>	

GASTUAK							Mila-euro
KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. OBLIGAZIO.	ORDAINDUTA	ORDAIN- TZEKO	
1.- Langileen gastuak.....	5.852	459	6.311	5.650	5.609	41	
2.- Funtzionamenduko gastuak.....	1.826	151	1.977	1.818	1.535	283	
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	41	-	41	25	16	9	
6.- Inbertsio errealak .....	866	(170)	696	530	132	398	
8.- Finantza-aktiboen gehikuntza.....	18	-	18	8	8	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.603</b>	<b>440</b>	<b>9.043</b>	<b>8.031</b>	<b>7.300</b>	<b>731</b>	

AURREKONTU ITXIAK						Mila-euro
	ERA.GABEKO ESKU. 02.12.31N	KOBRAN / ORDAINK.	BALIOGABET.	ERA.GABE. ESK. 03.12.31N		
Diru-sarrerak .....	230	8	1	221		
Gastuak .....	1.020	1.019	-	1		

2003KO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N		Mila-euro
Diruzaintzako soberakina 02.12.31n.....		691
2003ko ekitaldiaren emaitza .....		(290)
Ekitaldi arrunta .....	(289)	
Ekitaldi itxiak .....	(1)	
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N</b>		<b>401</b>

2003ko abenduaren 31n ez dago kontingentzia esanguratsurik eta, honenbestez, Diruzaintzako Soberakina 401 mila eurokoa da.



## OSALAN

AURREKONTU ARRUNTA						Mila-euro
DIRU-SARRERAK KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. ESKUBIDE.	KOBRATUTA	KOBRA- TZEKO
3.- Tasak eta beste batzuk .....	64	-	64	106	103	3
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	10.486	149	10.635	10.529	10.529	-
5.- Ondareko sarrerak .....	2	-	2	1	-	1
7.- Transferentziak eta kapital-laguntzak.....	61	-	61	60	60	-
8.- Finantza-aktiboen murrizketa.....	210	-	210	44	44	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.823</b>	<b>149</b>	<b>10.972</b>	<b>10.740</b>	<b>10.736</b>	<b>4</b>

GASTUAK						Mila-euro
KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. OBLIGAZIO.	ORDAINDUTA	ORDAIN- TZEKO
1.- Langileen gastuak.....	6.286	149	6.435	5.888	5.852	36
2.- Funtzionamenduko gastuak.....	2.362	(54)	2.308	2.101	1.703	398
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	1.904	(172)	1.732	1.678	1.468	210
6.- Inbertsio errealak .....	204	-	204	193	157	36
7.- Transferentziak eta kapital-laguntzak.....	-	226	226	133	-	133
8.- Finantza-aktiboen gehikuntza.....	67	-	67	36	36	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.823</b>	<b>149</b>	<b>10.972</b>	<b>10.029</b>	<b>9.216</b>	<b>813</b>

AURREKONTU ITXIAK					Mila-euro
	ERA.GABEKO ESKU. 02.12.31N	KOBRAN / ORDAINK.	BALIOGABET.	ERA.GABE. ESK. 03.12.31N	
Diru-sarrerak .....	6	2	1	3	
Gastuak .....	842	812	30	-	

2003KO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N		Mila-euro
Diruzaintzako soberakina 02.12.31n.....		931
2003ko ekitaldiaren emaitza .....		740
Ekitaldi arrunta .....	711	
Ekitaldi itxiak .....	29	
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N</b>		<b>1.671</b>

2003ko abenduaren 31n ez dago kontingentzia esanguratsurik eta, honenbestez, Diruzaintzako Soberakina 1.671 mila eurokoa da.



## EMAKUNDE

AURREKONTU ARRUNTA						Mila-euro
DIRU-SARRERAK KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. ESKUBIDE.	KOBRATUTA	KOBRA- TZEKO
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	2.530	122	2.652	2.652	2.652	-
5.- Ondarezko sarrerak .....	-	-	-	4	4	-
8.- Finantza-aktiboen murrizketa.....	30	-	30	1	1	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.560</b>	<b>122</b>	<b>2.682</b>	<b>2.657</b>	<b>2.657</b>	<b>-</b>

GASTUAK						Mila-euro
KAPITULUA	HASIERA. AURREK.	ALDAK.	BEHIN-BETI. AURREK.	AITORTU. OBLIGAZIO.	ORDAINDUTA	ORDAIN- TZEKO
1.- Langileen gastuak.....	978	22	1.000	981	977	4
2.- Funtzionamenduko gastuak.....	1.085	73	1.158	1.157	1.005	152
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak....	497	23	520	520	335	185
8.- Finantza-aktiboen gehikuntza.....	-	4	4	4	4	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.560</b>	<b>122</b>	<b>2.682</b>	<b>2.662</b>	<b>2.321</b>	<b>341</b>

AURREKONTU ITXIAK					Mila-euro
	ERA.GABEKO ESKU. 02.12.31N	KOBRAN / ORDAINK.	BALIOGABET.	ERA.GABE. ESK. 03.12.31N	
Diru-sarrerak .....	1	1	-	-	-
Gastuak .....	187	186	1	-	-

2003KO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N		Mila-euro
Diruzaintzako soberakina 02.12.31n.....		63
2003ko ekitaldiaren emaitza .....		(4)
Ekitaldi arrunta .....	(5)	
Ekitaldi itxiak .....	1	
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 03.12. 31N</b>		<b>59</b>

2003ko abenduaren 31n ez dago kontingentzia esanguratsurik eta, honenbestez, Diruzaintzako Soberakina 59 mila eurokoa da.



## IV.2 EMAITZEN BALANTZEA ETA KONTUA

EGOERAREN BALANTZEA 03.12.31N

Mila-euro

AKTIBOA	HABE	HAEE	EHPI	EUSTAT	OSALAN	EMAKUNDE
<b>IBILGETUA</b>	<b>6.122</b>	<b>1.789</b>	<b>8.960</b>	<b>1.652</b>	<b>7.667</b>	<b>498</b>
Ez-materiala.....	1.318	279	15	1.374	155	9
Materiala.....	6.525	2.162	12.967	1.579	9.337	577
Pilatutako amortizazioa.....	(1.721)	(652)	(4.022)	(1.301)	(1.825)	(88)
<b>ZIRKULATZAILEA</b>	<b>5.629</b>	<b>3.109</b>	<b>5.843</b>	<b>1.716</b>	<b>3.092</b>	<b>504</b>
Zordunak c/p.....	38	423	53	247	98	3
Aldi baterako finantza-inbertsioak.....	5.383	2.528	5.679	1.409	2.846	440
Finantza-kontuak.....	208	158	111	60	148	61
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>11.751</b>	<b>4.898</b>	<b>14.803</b>	<b>3.368</b>	<b>10.759</b>	<b>1.002</b>
<b>PASIBOA</b>						
<b>BEREZKO FUNTSAK</b>	<b>5.583</b>	<b>3.282</b>	<b>6.007</b>	<b>1.885</b>	<b>2.283</b>	<b>69</b>
Ondarea.....	10.007	8.494	6.515	4.459	1.884	558
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(4.004)	(5.847)	(2.098)	(2.306)	(374)	(482)
Ekitaldiko emaitzak.....	(420)	635	1.590	(268)	773	(7)
<b>EKITALDI BATZUETAN BANATZEKO DIRU-SARRE.</b>	<b>2.685</b>	<b>140</b>	<b>7.099</b>	<b>177</b>	<b>7.131</b>	<b>490</b>
<b>HARTZEKODUNAK</b>	<b>3.483</b>	<b>1.476</b>	<b>1.697</b>	<b>1.306</b>	<b>1.345</b>	<b>443</b>
Epe laburrean.....	3.483	1.476	1.697	1.306	1.345	443
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>11.751</b>	<b>4.898</b>	<b>14.803</b>	<b>3.368</b>	<b>10.759</b>	<b>1.002</b>

2003KO EKITALDIKO IRABAZI ETA GALEREN KONTUA

Mila-euro

ZOR	HABE	HAEE	EHPI	EUSTAT	OSALAN	EMAKUNDE
<b>GASTUAK</b>						
Soldata eta lansariak.....	2.660	3.731	4.411	5.650	5.888	981
Kanpoko zerbitzuak.....	4.466	9.557	4.529	1.818	2.101	1.158
zergak eta beste batzuk.....	-	-	5	-	-	-
Emandako dirulaguntza arruntak.....	19.373	505	1.017	25	1.678	520
Emandako kapital-laguntzak.....	12	-	-	-	133	-
Amortizazio-zuzkidurak.....	366	84	974	506	282	19
Ez ohiko galerak.....	-	5	-	1	1	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>26.877</b>	<b>13.882</b>	<b>10.936</b>	<b>8.000</b>	<b>10.083</b>	<b>2.678</b>
Ekitaldiaren emaitzak (Mozkinak).....	-	635	1.590	-	773	-
<b>ZOR GUZTIRA</b>	<b>26.877</b>	<b>14.517</b>	<b>12.526</b>	<b>8.000</b>	<b>10.856</b>	<b>2.678</b>
<b>HARTZEKO</b>						
<b>DIRU-SARRERAK</b>						
Salmentengatiko sarrerak.....	8.483	1.126	54	359	100	-
Beste kudeaketa-sarrera batzuk.....	16	16	15	-	7	3
Dirulaguntza arruntak.....	17.313	13.326	11.855	7.369	10.589	2.653
Kapital-laguntzak.....	580	3	-	3	129	13
Finantza-sarrerak.....	3	9	3	1	1	1
Emaitzara lekualdatutako dirulaguntzak.....	62	-	577	-	-	-
Ez ohiko mozkinak.....	-	37	22	-	30	1
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>26.457</b>	<b>14.517</b>	<b>12.526</b>	<b>7.732</b>	<b>10.856</b>	<b>2.671</b>
Ekitaldiaren emaitzak (Galerak).....	420	-	-	268	-	7
<b>HARTZEKO GUZTIRA</b>	<b>26.877</b>	<b>14.517</b>	<b>12.526</b>	<b>8.000</b>	<b>10.856</b>	<b>2.678</b>



## I INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP/HKEE), conforme a lo establecido en la Ley 1/1988 reguladora del mismo, y de acuerdo con el programa de trabajo para el periodo abril 2004-marzo 2005, ha realizado este informe de fiscalización del ejercicio 2003 de la Administración Institucional: Organismos Autónomos Administrativos de la Comunidad Autónoma de Euskadi (OOAA). Son entidades de derecho público, dotadas de personalidad jurídica propia, adscritas a los siguientes departamentos de la Administración General:

ORGANISMO AUTÓNOMO	DEPARTAMENTO
Instituto de Alfabetización y Reuskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis (HABE) .....	Cultura
Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) .....	Hacienda y Administración Pública
Academia de Policía del País Vasco (APPV) .....	Interior
Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) .....	Hacienda y Administración Pública
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales (OSALAN) .....	Justicia, Empleo y Seguridad Social
Instituto Vasco de la Mujer (EMAKUNDE) .....	Lehendakaritza
Instituto Vasco de Educación Física (IVEF) .....	Cultura

Las Cuentas de estos Organismos se incluyen en la liquidación de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El trabajo realizado incluye el examen de los principios contables aplicados y el cumplimiento de la normativa legal, mediante la realización de pruebas selectivas de la evidencia justificativa de la Cuenta y la evaluación de su presentación global.

No hemos efectuado un análisis sobre la eficacia y la eficiencia del gasto, aspecto previsto en la Ley reguladora del TVCP/HKEE. No obstante, los aspectos parciales detectados se detallan en el epígrafe III de este informe.

Las cuentas del Organismo Autónomo Administrativo Instituto Vasco de Educación Física (IVEF), no han sido objeto de fiscalización al aprobarse por Decreto 240/2005 de 13 de septiembre (BOPV 16.9.2005), la extinción e integración del mismo en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, con efecto 1 de octubre de 2005.



## II OPINIÓN

### II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

- 1.- Los presupuestos de los OOAA aprobados para el año 2003 no incluyen una clasificación territorial de ingresos y gastos, incumpliendo el artículo 57 del DL 1/1994.
- 2.- El inventario de bienes y derechos de los OOAA a 31.12.03 no contiene un detalle individualizado de bienes por 1.174 miles de euros (ver A.8), incumpliendo el art. 11 de la Ley 14/1983 de Patrimonio de Euskadi.
- 3.- Los OOAA de la CAE no han declarado como retribuciones en especie, a efectos del IRPF, el coste imputable a los seguros de vida y accidentes no laborales suscritos a favor del personal a su servicio.
- 4.- Por Decreto 161/98, de 21 de julio, se desarrolló el artículo 178 de la Ley 13/98, de 19 de mayo, de tasas y precios públicos, incluyendo los bienes, servicios y actividades susceptibles de ser retribuidas mediante precios públicos, estableciendo la fijación o modificación de las cuantías por orden del Consejero del Departamento del que dependa cada organismo.

EMAKUNDE no tiene fijadas las tasas y precios públicos susceptibles de ser retribuidos, en concreto por venta de publicaciones y matrículas de seminarios, congresos, jornadas y cursos.

La APPV tampoco tiene establecidas las cuantías por orden del Consejero, aplicando únicamente la tasa por recepción y examen de la solicitud, prevista en las bases de la convocatoria de la 18ª promoción. Para el servicio de comedor y cafetería se aplican los importes fijados en 1994, en base a cálculos de costes efectuados en dicho año, sin que fueran aprobados por la correspondiente Orden.

5. La relación de puestos de trabajo de EMAKUNDE no incluye como personal eventual el puesto de asesor de prensa nombrado por Resolución de 2 de enero de 2002, tal y como establece el artículo 14.1 de la Ley 6/1989, de Función Pública Vasca.

**En nuestra opinión, excepto por las salvedades anteriormente descritas, los Organismos Autónomos Administrativos de la CAE han cumplido razonablemente, en el ejercicio 2003, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.**



## **II.2 OPINIÓN SOBRE LA CUENTA DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS (OOAA)**

1. El Remanente de Tesorería del EUSTAT debería disminuir en 219 miles de euros como consecuencia del acuerdo de liquidación del Convenio suscrito entre el INE y el EUSTAT para la elaboración del censo de edificios y locales del año 2001.
  
2. Salvedades que afectan exclusivamente a la Contabilidad Patrimonial:
  - Dentro del epígrafe de inmovilizado existen partidas por un importe de 3.826 miles de euros de las que no se dispone de un detalle individualizado (ver A.8). El valor neto contable de estas partidas a 31.12.03 asciende a 1.174 miles de euros.

En nuestra opinión, excepto por las salvedades de los párrafos anteriores, las Cuentas adjuntas de los Organismos Autónomos Administrativos de la CAE expresan en todos los aspectos significativos la actividad económica del ejercicio 2003.



### **III ASPECTOS DE GESTIÓN**

Este apartado recoge deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la contabilidad, la gestión de personal y la contratación.

#### **III.1 PRESUPUESTO Y MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS**

Del análisis del presupuesto de la APPV y de las modificaciones realizadas, que no hubieran sido necesarias teniendo en cuenta la ejecución final del presupuesto, se deduce una falta de rigor en la realización del presupuesto.

El crédito del capítulo 4 de gastos corresponde a las transferencias a los alumnos de la 18ª promoción por las retribuciones previstas en el artículo 54.2 de la Ley 4/1992, de 17 de julio.

Teniendo en cuenta el carácter retributivo y la condición de funcionarios en prácticas, debe presupuestarse en el capítulo 1 como gasto de personal.

Por otra parte, la transferencia desde este capítulo, al capítulo 2 de gastos, por importe de 342 miles de euros, debería haberse aprobado por el Consejo de Gobierno dado su carácter nominativo y la variación de los objetivos, indicadores y acciones causados por dicha modificación.

#### **III.2 PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN DE PERSONAL**

Para la contratación del personal de carácter temporal de los OOAA existe un procedimiento establecido, que desde el año 2004, con la entrada en funcionamiento del programa informático de Gestión Integral de Personal (GIP), se ha unificado e informatizado en sus procesos y documentos.

